

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZARAUZKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zarauzko Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du TAO zerbitzua kudeatzeko kontratuak - 2007an abiarazi zen egikaritzea- hainbat aldaketa izan zituela eta aldaketa horiek guztiak behar bezala izapidetu gabe onetsi zirela; gainera, kontratuak kanon aldakor bat jasotzea aurreikusi zuen, baldin eta soberakinak gertatuko balira; ordea, kontratuaren pleguak ez ditu zerbitzuaren soberakina kalkulatzeko irizpideak zehazten eta horrek eragotzi egiten du horren zenbatekoa eta udalak bertan duen partaidetza zehaztea.

Gainera, hiru kontratutan aldaketak egin ziren eta kopuruaren zenbatekoari erreparatuz gero, lehia printzipioak urratzen dituztela ikus daiteke, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere itxuraldatzen dutelako; halaber, hiru obra proiektutan hainbat aldaketa egin ziren, baina aldaketa horiek behin proiektua gauzatu ondoren onartu ziren edo ez zituzten batere onartu.

Alkateak 2009ko otsailaren 6an hitzarmen bat izenpetu zuen Uraren Euskal Agentziarekin; horren indarrez, Udalak 2009 eta 2010ean hainbat obra egiteko konpromisoa hartu zuen, 4,5 milioi euroko zenbatekoarekin presupuestatu zirenak. Hitzarmen hori Udalbatzak onartu behar zukeen.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 2,2 mila euroan murriztu duena.

Erakunde autonomo eta sozietate publikoei dagokienez, legea betetzeari eta urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da, nahiz bi ez-betetze azpimarratu diren Kirol Patronatua Erakunde Autonomoari eta Zarautz-Lur, SAri dagokienez; ez-betetze horiek kontratazio atalekoak dira eta txostenean daude jasoak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoera dela eta, 2007-2009 aldian udalak zorpetzea eta geldikina baliatu ditu inbertsio handiak finantzatu ahal izateko. Gainera, zerbitzuen gastuak gehitu dira eta ez da egonkortuta dauden edo behera doazen sarrera arrunten eszenategi berriak agintzen duen doiketa gauzatu. Horregatik guztiagatik, Udalak etorkizunean gutxiengo inbertsio batzuk egin nahi baditu, gastuen gainean eragin beharko du eta epe laburrera diru-laguntzak eskuratu edo aktibo zein aparteko izaera duten bestelakoak salduta diru-sarrerak eskuratzeari meneratuko zaizkio.